

artikulu nabarmenak  
artículos destacados

2012



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud

septiembre



**García Moriyón, Félix y Renes Ayala, Víctor (coords.) La educación formal y los procesos de inclusión social.**

Documentación social: revista de estudios sociales y de sociología aplicada aldizkariaren ale monografikoa. Bertan, besteak beste, honako gai hauek lantzen dira: hezkuntzak duen egitekoa laneratzen direnak prestatzeko garaian; hezkuntzaren arloko errentagarritasuna eta gastua; hezkuntza-politikak; eskola demokratikoak edo ikaskuntza-komunitateak.

*Documentación social: revista de estudios sociales y de sociología aplicada*, 163. zk., 2011ko urria-abendua, 286 or.



**Sweeting, Helen; Hunt, Kate; Bhaskar, Anita. Consumerism and well-being in early adolescence.**

Artikulu honetarako nerabe gazteen lagin bati dagozkion datuak erabili dira. Bertan, honako alderdiak aztertzen dira: kontsumismo-mailak, kontsumismoaren eta ongizatearen hainbat alderdiren arteko harremanak eta sexuaren, eskola-taldearen adinaren eta familiaren diru-sarreraren arabeko aldeak. Datuak 2010ean eskuratu ziren, Bigarren Hezkuntzako ikasleei egindako inkestetan. Balio kontsumistak oso barneratuta zituztela konprobatu zen. Kontsumismoaren eta ongizatearen arteko harreman asko indartsuagoak ziren kontsumismoaren eta familiaren diru-sarreraren artean zeudenak baino. Emaitza horiek aditzera ematen dutenez, kontsumismoaren alderdi batzuk baino ez daude lotuta nerabe pobreenen ongizatearekin.

*Journal of Youth Studies*, 15. lib., 6. zk., 2012ko iraila, 802-820. or.



**Rubio Gil, Ángeles; San Martín Pascal, M<sup>a</sup> Angeles. Subculturas juveniles: identidad, idolatrías y nuevas tendencias.**

Gazte-azpikulturek eginkizun garrantzitsua izan dute XX. mende erdialdetik aurrera gauzatu den gizarte-aldaketan, nerabezaroa eta gaztaroa gizarte-talde autonomo gisa eta erreferentziatzko bizi-etapa gisa eratzuz joan diren heinean. Eginkizun horri dagokionez, komunikabideetako idoloek azpikultura bakoitzaren sorrera, estilo-eraketa eta berariazko balioak bultzatu dituzte; duten funtzio totemikoan, eragina izan dute belaunaldiz belaunaldi, eta kultura-ikono bilakatu. XXI. mendearen 1. hamarkadan, ordea, idoloak eta tribuak seriotasuna eta definizioa galduz joan dira eta, hartara, gazteek, Maffesolik bultzatzen duen logika neotribal postmodernoaz harago, postmodernizazio-prozesuenganako jarrera kritikoa garatu dituzte.

*Revista de estudios de juventud*, 96. zk., 2012ko martxoa, 197-213. or.



KULTURA SAILA  
Gazte eta Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Dirección de Juventud